



OHIKO GALDERAK. GAI ORGANIKOETARAKO ETA GAINERAKOETARAKO EDUKIONTZIEN SISTEMA BERRIA EZARTZEKO KANPAINA (2022ko udazkeneko kanpaina. 1. fasetik 3.era)

GAI ORGANIKOEN GAIKAKO BILKETA

1. Zer jotzen da gai organikotzat?

- Fruten eta barazkien hondarrak, haragiarenak, arrainarenak, esnekiak...
- Eginda dauden elikagaien hondarrak.
- Fruitu lehorren hondarrak, oskolak (arrautzarenak) eta maskorrak (itsaskienak).
- Kafearen hondarrak/iragazkia, eta tearen edo infusioen poltsatxoak.
- Landare-hondakinak: lore eta hosto berdeak edo lehorrak, soropila eta inauste-hondakin zatikatuak.
- Sukaldeko papera eta paperezko ezpain-zapi zikinak, janari-hondarrak, olioak, koipea... dutenak.

[Argibide gehiago](#)

2. Zergatik da hain garrantzitsua hondakin organikoak bereiztea?

Etxebizitzetan egunero sortzen diren hondakinen %40 inguru gai organikoak izaten dira.

Hondakinak ongi bereizten baditugu, eta berariaz organikoak, denok irabaziko dugu...

- ekonomia zirkularra bultzatuko baitugu: hondakinak baliabide bihurtzen dira;
- hiri-hondakinak murrizteko EBk finkatutako helburuak lortzen lagunduko baitugu;
- tratatu gabeko hondakinak zabortegetan pilatzea ekidingo baitugu, kutsatzen duten isurpenen guneak direla aintzat hartuta;
- bildutako gai organikoekin energia (biogasa) ekoizten baita eta bai konposta ere gure baratze eta lorategietarako;
- bultzada ematen baitugu enplegu berdeari: gai organikoak bildu eta kudeatzeak lanpostu berriak sortzeko bidea ematen du.



3. Zer egiten da edukiontzietan biltzen diren gai organikoekin?

Edukiontzi marroian biltzen diren gai organikoak Caparrosoko HTN Biogas plantan prozesatzen dituzte. Han, biometanizazio-prozesu baten bidez, gai organikoak biogas bihurtzen dira, elektrizitatea sortzeko aukera ematen duen energia-iturri garbi bat. Gainera, tratamendu-prozesuan sortzen den hondar solidoa ongari natural moduan erabil daiteke nekazaritzako lurzoruetarako.

Gogoan izan behar da hiri-hondakinak tratatzeko zentro berria Noainen, Elortzibarren, ezartzeko lan egiten jarraitzen dela. Aurreikusita dago 2024an jartzea abian zentro hori, eta hondakin gehiago berreskuratzeko bidea emango du, Nafarroako Hondakinen Legea betetze aldera.

4. Zer motatako poltsa erabili behar dut gai organikoetarako?

Hondakinak beti poltsa barnean bota behar dira, eta poltsak itxita egon behar du.

Edozein motatako poltsa erabil badaiteke ere, gomendatzen da konpostagarriak erabiltzea, gai organikoekin batera degradatzen baitira. Edonola ere, plastikozkoak erabiltzen badira ere, tratamendu-sistemak barne hartzen du aurretiko prozesu bat, plastikozko poltsak bereizten dituen.

5. Zergatik ez dira biltzen gai organikoak atez ateko sistema baten bidez?

Mankomunitatean, etxebizitza-blokeen masa handi bat dugu eta biztanle-dentsitate nahikoarekin, eta, hortaz, hobe da gai organikoetarako edukiontzi berri bat hautatzea. Hartara, gainera, herritarrek onura dute bilketarako sistema malguagoa izatea, hondakinak nahi duten egunean eta orduan bota baititzakete eta oso modu errazean, gainera.

Atez ateko sistema egokiagoa da udalerrri txikietarako eta biztanle-dentsitate baxua dutenetarako. IMren iparraldean, ezaugarri horiek dituzten udalerrietan, gai organikoak etxeko eta auzoko konpostajearen bidez kudeatzen dira. Hori ere sistema aproposa da udalerrri txiki eta sakabanatueterako.

6. Zergatik da hain garrantzitsua gai organikoak birziklatzea eta zaborte-gira bideratzen eta botatzen ditugun hondakinak minimizatzea?

Espainiako Hondakinen Legean sartuta dagoen Europako zuzentarauak adierazten duenaren arabera, 2035ean, sortutako hondakinen %10 baino ezin izango direlako isuri.

Tratatu gabeko gai organikoak berotegi-efektuko gasen isurpenen iturri nagusietako bat direlako.



Berreskuratutako gai organikoak baliabide bihurtzen direlako, energia berriztagarri bihurtzean, adibidez, hondakinak biltzeko kamioiak eta billabesak elikatzeke erabiltzen dena, eta bai konpost bihurtzean ere, baratzeak eta lursailak ongartzeko erabil daitekeena.

7. Zergatik birziklatu behar dugu birziklapen-tasak ordaintzen baditugu jada?

Material birziklagarria eta zuzen botatakoa saltzetik lortzen diren diru-sarrerak hondakinaren kudeaketaren zati bat dira, kudeaketaren kostu osoa murrizten duena, eta, horrenbestez, zenbat eta diru-sarrera gehiago lortu, orduan eta txikiagoa izango da tasetan islatutako kostu osoa.

Beste alde batetik, garrantzitsua da gogoraraztea hondakinak edukiontzira bota bitartean dagoen ardura herritar bakoitzarena dela.

IMk hondakinak edukiontzitik hartzearen, tratatzearen, eta komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzen ardura hartu behar du. Hondakinak gaika bereiztea etxean hasten da, gutako bakoitzaren konpromiso eta lanarekin.

8. Egia al da hondakinak edukiontzietatik bildu eta gero denak nahasten direla berriro eta zaborteaira botatzen direla?

Hori gezur zahar bat da, askotan gezurtatu izan dutena erakunde guztiek. Garrantzitsua da esatea gaika bereizita edukiontzira botatzen diren hondakin birziklagarri guztiak tratatu egiten dituztela birziklapen-enpresa baimenduek eta ekoizpen-zikloan sartzen direla berriz, ekonomia zirkularrak adierazten duenaren arabera.

IMk bisita gidatuak egiten ditu aldian behin Hondakinak Tratatzeke Zentrora, herritarrek prozesua bertatik bertara ezagutu eta hobeto ulertzeko.

9. Etxean hondakinak gaika biltzeak lanpostuak galtzea ekar dezake?

Zenbait azterlanetan adierazten den moduan, birziklapena eta ekonomia zirkularra sustatzea ingurumena babesteko ezinbestekoa da eta, gainera, milaka lanpostu sortzeko bidea ematen du.

Ingurumen-izaerako jarduerak enplegu-sortzaile handietako batzuk izatera helduko dira.

10. Egia al da askoz ere garrantzi handiagoa duela enpresetan hondakinak gaika bereizteak herritarrek maila pertsonalean egiten dutenak baino?

Enpresek hondakinak ongi bereiztea eta botatzea garrantzitsua da, baina termino kuantitatiboetan norbanakoon jokaerak dira azken emaitzetan eragin handiena dutenak. 2021ean, Iruñerrian 151.167 t hondakin sortu ziren, etxebizitzetan eta saltokietan. Hondakin horiek edukiontzietara botatzen dituzte herritarrek edo saltoki txikiek.



11. Ez dakit ziur hondakin jakin bat nora bota, zalantzak ditut. Non begiratu dezaket?

[IMren webguneko](#) hondakinen bilatzailea erabil dezakezu edo ‘Nora botako dut?’ eskupapera kontsultatu dezakezu, frakzio bakoitzera bota beharreko hondakin-motak zerrendatzen baititu.

EDUKIONTZIEN SISTEMA BERRIA

1. Zertan datza?

Kontakturik gabeko txartela eta mugikorrerako *app*-a erabilia irekitzeko sistema berri bat da, eta gai organikoetarako edukiontzietan (estalki marroia) eta gainerakoetarakoetan (estalki grisa) jarriko da. Modelo berria ezartzeak Mankomunitateko hiri-eremuko 345.000 biztanle hartuko ditu. Bilketa-sistema berri hau hedatzen 2023an amaituko da.

Gainera, aldaketa honekin, edukiontziak irekitzen errazagoak eta erosoagoak izango dira, denek pedal bat edukiko baitute estalkia goratzeko eta frakzio desberdinak identifikatzeko metodo bat itsuentzat.

2. Zergatik ezarriko da?

Helburua da gai organikoak bereiz biltzearen tasa handitzea eta Europako araudiak eta 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planak ezartzen dituzten helburuak betetzea. Azken horrek, hain zuzen, xedetzat hartzen du gutxienez gai organikoen %70 bereiztea eta %10eko muga izatea desegoki botatakoen artean.

Artika Berrian eta Azpilagañan 2018-2019an egin zen proba gisako esperientzian –txartel bidez irekitzen ziren edukiontziak kokatu ziren gai organikoetarako eta gainerakoetarako– lortu zen berreskuratutako hondakin organikoen pisua %300 baino gehiago handitzea.

3. Non eta noiz ezarriko da?

Ezartzeko kanpainaren hirugarren zatia 2022ko urri eta azaro artean egingo da. Zenbait fasetan eta esparruka gauzatuko da:

- **1. fasea: Sanduzelai, Buztintxuri, Santa Engrazia eta Artika Berria** (urriaren 17tik 21erako astea)
- **2. fasea: Arrotxapea** (azaroaren 2tik 9rako astea)
- **3. fasea: Txantrea** (azaroaren 14tik 18rako astea)



Kanpainaren lehen eta bigarren zatiak 2021eko irail eta 2022ko ekain artean garatu ziren. Lezkairun, Erripagañan, Mutiloartean eta Arrosadian, edukiontziak zabalteko sistema berriarekin batera, **bilketa pneumatikorako** sistema ere jarri zen abian.

[Ikusi hemen plan zehatza](#)

4. Nola lor ditzaket informazioa, txartela eta *app*-rako baimenak?

Zure esparruan edukiontziak aldatu aurreko asteetan, informazio guztia eta sistema berria erabiltzeko beharrezkoa den materiala jasoko duzu. Heziketa-taldeak etxebizitza eta saltoki guztiak bisitatuko ditu bi astean zehar, eta bi txartel eta mugikor-erako aplikazioan sartzeko baimenak -erabiltzailea eta pasahitza- emango dizkizu. Behin etxez etxeko eta saltokiz saltokiko bisita horiek amaituta, zure esparruko informazio-gunean ere jaso ahal izango dituzu, beste bi astean zabalik egongo baita.

[Ikusi hemen ordutegiak eta kokalekuak](#) (Informazio-ekintzen eta bisiten atala – 2022ko udazkena)

Gainera, edukiontzi berriak kokatu ondorengo asteetan, hezitzaile-taldeak laguntza emango die herritarrei edukiontzien ondoan, zalantzak argitzeko, informazio-materiala emateko eta jokabide desegokiak prebenitzeko.

Gainera, argibide gehiago izan dezakezu Herritarren Arretarako Zerbitzuaren 948 42 32 42 telefono-zenbakira deituta, kanpainaren 948 27 19 77 zenbakira edo mezu elektronikoa bidalita helbide honetara: infocampana@mcp.es.

5. Zergatik daude itxita edukiontziak?

Ezarriko den irekitze-sistemak ahalbidetuko du gaikako bilketaren indizeak hobetzea (gai organikoen indizeak handitzea eta gainerakoen frakzioaren indizeak gutxitzea), libreki botatzea mugatzen baita.

Era berean, hondakin desegokirik gabeko gai organikoak lortzeko aukera emango du, hau da, organikoak ez diren eta tratamendua zailtzen duten hondakinik gabekoak. Gainera, irekitze adimenduna duten edukiontzien sistemak erabileraren datuak erregistratzeko eta gaikako bilketan herritarren parte-hartzea ikertzeko bidea ematen du.

6. Sistema berriak edukiontzi berri asko erostera behartu du eta horrek kalte ekonomikoa eta ingurumenekoa ekarri du?

Sistema berrirako birmoldatu egin dira lehendik zeuden edukiontzi guztiak, beren bizitza baliagarriaren amaierara iritsi zirelako ordeztu egin behar zirenak izan ezik. Horrenbestez, edukiontzi berrien kostua ezin zaio egotzi sistema berriari.



Beste alde batetik, kentzen diren edukiontzia, ezin badira erabili bigarren mailako beste kontu batzuetan, berreskuratzen bidaltzen dira, plastikoa birziklatzeko.

7. Txartelak erabiltzeak osasungaitasun-arazoak ekar ditzake edukiontzia ukitu behar izatean?

Sarraila duten edukiontzi guztiak irekitzeko pedalak jarri dira. Hartara, txartela erabiltzen dutenek soil-soilik botoi bat sakatu behar dute, sistema aktibatzen. Eta hori bera egin behar izaten da, besteak beste, igogailuan, txirranean, atari bateko atean edo kalea gurutzatu ahal izatea eskatzeko aukera ematen duten semaforoetan.

Gainera, app bat sortu da ("SIGMA MCP") eta horrek ahalbidetzen du edukiontzia urrutitik irekitzea. Kasu horretan, ez da aktibatze-botoia ukitu behar, ez eta sarrailako beste inolako elementurik ere.

8. Hondakinen tasa murriztuko didate, hondakinak ongi bereizten badituzte?

Etxean hondakinak gaika bereiztea ez da jarrera-kontua bakarrik, herritar ororen betebeharrak zibikoa ere bada. Mankomunitatearen filosofia da jokabide arduratsuak bultzatu eta erraztea.

9. IMk isunak jarriko dizkie edukiontzia irekitzen ez dituztenei?

Egun, poltsak eta tamaina handikoak edukiontzitik kanpo uzteagatik bakarrik aurreikusten dira zehapenak, baldin eta Poliziak identifika baditzake hori egiten dutenak. Baina, inola ere ez, txartelak ez erabiltzeagatik. Ordenantzak zehapenak ezartzen ditu gaizki botatako hondakinengatik, bereizi gabe botatzeagatik edo beste frakzio baterako edukiontzian botatzeagatik.

10. Zer gertatzen da edukiontzietatik kanpo, bide publikoan, uzten diren poltsekin?

Edukiontzitik kanpo uzten diren poltsei jarraipena egiteko dispositibo bat du Mankomunitateak. Egun, egiaztatu da 1.000 biztanleko egunean 8 poltza uzten direla edukiontzitik kanpo batez beste. Bideratu egin behar den kopuru handia da. Jokabide oker hori duten pertsonak gutxiengo dira, baina beren jokaerak herritar guztioi egiten digu kalte.

11. Tamaina handikoak bide publikoan uzten baditugu, aprobetxatu ahal dituzten bizilagunei laguntzen ari gara?

Etxebizitzetatik bertatik tamaina handikoak dohainik biltzeko IMk Emausko Trapuketariekin kontratatuta duen zerbitzua erabiltzea, ingurumenari dagokionez jardunbide iraunkorra izateaz gain, elkartasunezkoa ere bada.



Emausko Trapuketariena fundazio bat da, eta zailtasunak dituzten ia 300 pertsonari ematen die lana. Berreskuragarriak badira, bildutako objektuak berreskuratu eta saltzearen ardura dauka. Salmenta horren irabaziak osorik inbertitzen dira berriro Emausko Trapuketarien mantentze-lanetan.

Kalean uzten diren tamaina handiko objektu askok berreskuragarri izateari uzten diote bandalismoarengatik edo eguraldiaren ondorioz.

ARTIKA BERRIAN ETA AZPILAGAÑAN EZARTZEA (IRUÑERRIKO HIRI-EREMU OSOAN EZARRI AURRETIK, PROBA PILOTUA EGIN ZEN AUZOAK)

1. Zer onura dituzte edukiontzi berriek?

Proba pilotuaren esperientziaren eta inguru horietako herritarrek helarazitako iritzien ondotik, edukiontziak irekitzeko sistema berriak zenbait hobekuntza ditu, besteak beste: pedal bat daukate edukiontzien eroago irekitzeko, eta mugikorrerako aplikazio bat edo txartel bat erabil daiteke edukiontziak irekitzeko. Gainera txartela [Eskualdeko Hiri Garraioko \(EHG\) txartel izengabe](#) moduan ere erabil daiteke.

2. 2018az geroztik erabiltzen dutan txartel berbera erabil dezaket?

Ez, orain arte erabili duzun txartelak erabilgarri egoteari utziko dio. Sistema berria erabili ahal izateko, txartel berria baliatu beharko duzu. Sistema berria ezartzen ari den gainerako tokietan bezala, edukiontziak aldatu aurreko asteetan, sistema berria erabiltzeko behar den informazio eta material guztia jasoko duzu. Heziketa-taldeak lehenbizi etxebizitza eta saltoki guztietara egingo du bisita, bi txartel berriak eta mugikorrerako aplikazioan sartzeko baimenak emateko -erabiltzailea eta pasahitza-. Behin bisita horiek amaituta, toki bakoitzean jarriko den informazio-gunean ere hartu ahal izango dira, hurrengo bi asteetan.

3. Gai organikoetarako eta gainerakoen frakziorako edukiontziak asteko egun guztietan ireki ahal izango ditut?

Bai horixe, txartel berria edo mugikorrerako aplikazioa erabilia egunero erabili ahal izango dituzu gai organikoetarako eta gainerakoen frakziorako edukiontziak, inolako murrizketarik gabe.

4. Zergatik ez dira mugatzen edukiontzi grisa irekitzeko egunak, Azpilagañan egiten zen moduan?

Azpilagaña eta Artika Berria auzoetan 2018az geroztik ezarritako sistema proba pilotu bat zen. Azpilagañan 'gainerako' frakziorako edukiontziak lau egunetan bakarrik ireki ahal izatea beharrezkoa izan zen, bi tokietako emaitzak alderatu eta ebaluatu



ahal izateko. Proba pilotuaren ondoren aztertutako datu guztiak eta ikasitako guztia aintzat hartuta, era positiboagoan baloratu da egunero ireki ahal izatea, murrizketarik gabe, bi frakzioetako edukiontziak, ez baitzen emaitza adierazgarriki hoberik detektatu gainerakoen edukiontzia irekitzeko egunak mugatzeko kasuan.

IREKITZE-SISTEMAREN FUNZIONAMENDUARI BURUZKO GALDERAK

1. Nola irekiko dira aurrerantzean edukiontziak?

Gai organikoetarako edukiontziko giltza ordeztu egingo da: edukiontziak elektronikoki irekiko dira, txartelaren edo mugikorrerako *app*-aren bidez.

Sistema honek, gainera, gainerakoen edukiontzia irekitzeko balioko du, hemendik aurrera itxita egongo baita.

Beira, papera, ontziak eta arropa botatzeko edukiontziak ez dira itxita egongo.

Etxebizitza eta saltoki bakoitzak bi txartel eta mugikorrerako aplikazioan sartzeko baimenak (erabiltzailea eta pasahitza) jasoko ditu.

2. Edukiontzia txartelaren bidez irekitzea

Gai organikoetarako eta gainerakoetarako edukiontziak txartelarekin zabaltzeko, pauso erraz hauek eman behar dira:

- 1) Sakatu pizteko botoia.
- 2) Gerturatu txartela sentzorera.
- 3) Goratu estalkia, pedala zapalduta.
- 4) Sartu poltsa edukiontzian.
- 5) Itxi estalkia, pedala askatuta.

3. Zer egin behar dut etxebizitzaz aldatzen banaiz?

-Utzi txartela etxebizitza zaharrean.

-Saldoa kargatuta baduzu txartelean, eskatu saldoa EHGko beste txartel batera aldatzeko, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bulegoan. [Aurretiko hitzordua eskatu](#)

-Eskatu txartelak helbide berrirako, ez badituzu jada.

4. Txartelek edozein esparrutako edukiontziak irekiko dituzte?

Bai, baita bilketa pneumatikoko buzoiak ere.



5. Eta txartela galdu bazait?

Txartel berria eska dezakezu, Mankomunitatearen webgunean eskuragarri egongo den [formularioa](#) beteta. Txartela kargatuta badago saldoarekin garraiorako txartel moduan ere erabiltzeko, EHGrako txartel izengabea izatean, dirua galdu egingo da.

Txartel berria helaraziko dizugu posta arruntaren bidez, inolako kosturik gabe. Eskaera egiteko laguntza behar baduzu, 948 42 32 42 telefono-zenbakira deitu dezakezu.

6. Edukiontzia *app*-aren bidez irekitzea

SIGMA MCP aplikazioa zure mugikorretik deskargatu ahal duzu, PlayStoren bilatuta Android sistemetarako edo AppStoren zure gailua iOS bada (iPhone). Deskargatuta daukazunean, saioa hasi beharko duzu, informazioa emateko *flyer* edo eskupaperean emandako baimenak erabilia (erabiltzailea eta pasahitza).

Aktibatu zure mugikorraren bluetooth sistema eta geolokalizazioa, eta, erabili nahi duzun edukiontzia ondoan zaudenean, eman pauso hauek:

- 1) Sartu aplikazioan eta sakatu edukiontzia sinboloa mugikorraren pantailan. Aukera horrek ez badu funtzionatzen, eskaneatu edukiontzia QR kodea.
- 2) Behin irekitzea balioztatuta, sakatu pedala estalkia irekitzeko.
- 3) Sartu poltsa edukiontzian.
- 4) Itxi estalkia, pedala askatuta.

7. Aplikazioa mugikor batean baino gehiagotan instalatu daiteke?

Bai, bost gailu mugikor desberdin ere erabili daitezke. Egin 3 pauso erraz hauetan:

1. Gailu berriak SIGMA MCP aplikazioa deskargatu behar du.
2. Gailu titullarrak lotura edo esteka bat bidali behar dio aplikaziotik gailu berriari.
3. Gailu berriak lotura ireki behar du SIGMA MCP aplikazioarekin.

8. Sartzeko pasahitza alda dezaket?

Bai; izan ere, baimenak sartzen dituzun lehenbiziko aldian, aplikazioak eskatuko dizu zure pasahitza eta erabiltzailea aldatzeko.

Emandako baimenak erabiltzeko baimendutako gailuei ez zaie eskatuko erabiltzailea eta pasahitza.



9. Etxebizitzaz aldatu naiz. Aplikazioa baimen berberekin erabil dezaket?

Ez. Txartelarekin gertatzen den moduan, aplikazioaren baimenak etxebizitza ba-koitzari lotuta daude.

Baimen berriak Herritarren Arretarako Zerbitzuan eska ditzakezu, 948 42 32 42 zenbakira deituta, [aurretiko hitzordua](#) eskatuta edo [formulario](#) hau beteta.

10. Aplikazioa erabiltzeko baimena eman diot maizter bati baina etxebizitzatik joan da. Nola ekidin dezaket hark aplikazioa erabiltzen jarraitzea?

“Nire kontua” atalean, “gonbidatu” gisa dauden gailu guztiak ikusteko aukera bat dago. Gonbidatuta dauden gailu horietako edozein ezabatzeko bidea ematen du aplikazioak.

11. Ez dut gogoan aplikazioa erabiltzeko nire erabiltzailea/pasahitza. Nola berreskura dezaket?

Aplikazioaren barnean, “Gorabeherak” atalean, formulario bat aurkituko duzu, berriro eskatzeko.

12. Itxita dagoen edozein edukiontzi ireki dezaket aplikazioa erabilia?

App-a helbide jakin bati lotuta dago, eta, beraz, zure inguruko edukiontziak baino ez zenituzke ireki beharko. Baina, txartelekin gertatzen den moduan, aplikazioa erabilia edozein tokitako edukiontziak ireki daitezke, bilketa pneumatikoko buzoiak izan ezik.

Aplikazioa erabilia edukiontzi bat irekitzeko arazorik baduzu, jar zaitez harremanetan Herritarren Arretarako Zerbitzuarekin (948 42 32 42).

13. Era berean erabil ditzaket txartela eta *app*-a?

Bai, bi metodoetako edozein erabil dezakezu gai organikoak eta gainerakoak botatzeko kalean kokatuta dauden edukiontziak zabaltzeko.

Dena den, gogoan izan ezazu **bilketa pneumatikoaren** kasuan buzoiak soil-soilik txartelarekin ireki ahal izango direla.

14. Pisu bat alokatu berri dut eta ez dut txartelik ezta baimenik ere *app*-rako. Zer egin behar dut lortzeko?

Pisu bat alokatzen duzunean, ohikoena da gurekin harremanetan jartzea uraren kontratuaren izena aldatzeko. Une horretan adieraz diezagukezu ez duzula txartelik ezta aplikazioa erabiltzeko baimenik ere, eta eman egingo dizkizugu.



Arrazoiren batengatik ez bada kontratuaren izena aldatu behar, txartela [formulario](#) hau beteta eska dezakezu. Gurekin harremanetan jar zaitezke telefonoz (948 42 32 42), eta eskaera egiten lagunduko dizugu.

15. Maizterra naiz eta etxebizitza utziko dut. Zer egin behar dut?

Lehenbizi, gogoan izan ezazu utziko duzun etxebizitzan utzi behar duzula helbide horri lotuta dagoen txartela. Txartela garraioko txartel gisa erabiltzeko kargatuta badago, EHGko beste txartel batera pasatu ahal izango duzu saldoa, Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bulegoan.

[Aurretiko hitzordua eskatu](#)

Bi aukera dituzu:

1) Txartel bidezko edukiontziak dituen inguru batera bazoaz

Mankomunitatearekin harremanetan jartzen zarenean uraren kontratuaren izena aldatzeko, txartelik ez duzula esan behar duzu eta guk emango dizkizugu.

Arrazoiren batengatik ez bada kontratuaren izena aldatu behar eta ez baduzu txartelik, [formulario](#) hau beteta eska dezakezu. Gainera, gurekin harremanetan jar zaitezke telefonoz (948 42 32 42), eta eskaera egiten lagunduko dizugu.

2) Txartelik gabeko edukiontziak dituen inguru batera bazoaz (giltza erabiltzen dena)

Gune hauetako batera jota lortu ahal izango duzu giltza:

- [Garbigune batera joanda](#), finkoa edo mugikorra izan

- Kanpainaren telefonora deituta: 948 27 19 77

- Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bulegora joanda (Navas de Tolosa k., 29 behealdea, Iruñea)

16. Etxebizitza/establezimendu baten jabea naiz eta saldu edo alokatu egin behar dut. Zer egin behar dut?

Txartelak eta mugikorrerako aplikaziorako erabilera-baimenak helbide jakin bati lotuta daude. Horrenbestez, pisu edo merkataritzako lokal bat saldu edo alokatzen duzunean, gutxienez txartel bat utzi beharko duzu edukiontziak irekitzeko eta mugikorrerako aplikazioa erabiltzeko baimena eman beharko diezu.



17. Erabilerarik gabeko lokalek/etxabeek txartela edukitzeko eskubidea daukate?

Bai.

18. Txartela garraio publikorako nire txartela balitz bezala erabil dezaket?

Bai. Sistema berri honen beste nobedadeetako bat da txartel bakar bat erabil daitekeela, batetik, hiri-garraioko joan-etorriak egiteko eta, bestetik, gai organikoetarako eta gainerakoetarako edukiontziak irekitzeko.

Edukiontzietarako txartela [Eskualdeko Hiri Garraioko txartel izengabe](#) moduan erabil daiteke. Txartel hori garraioko txartelak [kargatzeko edozein gunetan](#) eta “EHGaren birkarga” *app*-aren bidez kargatu ahal izango da, saldoa edukitzeko. Gogoan izan behar da, dena den, hondakinietarako txartela lehenbiziko aldiz kargatzeko guneko fisiko batera joan beharko dela eta, hortaz, ezin izango dela “EHGaren birkarga” *app*-aren bidez egin.

19. Erabil dezaket nire garraio-txartel pertsonalizatua edukiontziak irekitzeko?

Bai, jakina. Nola aktibatzen da?

- Bete IMren webgunean eskuragai dagoen [formularioa](#) edo deitu Herritarren Arretarako Zerbitzuaren 948 42 32 42 telefono-zenbakira.
- Eskaera izapidetzen denean, erabiltzaileak mezu elektronikoa jasoko du berresteko.
- Gero, Mankomunitatearen Herritarren Arretarako Zerbitzuaren bulegora joan beharko duzu edo [garbiguneetako](#) edozeinetara, txartela aktibatzeko.

20. Zer egin behar dut garraioko txartel pertsonalizatu bat badut, edukiontziak irekitzeko erabiltzen dudana, eta etxebizitzaz aldatzen banaiz?

Jarri harremanetan Herritarren Arretarako Zerbitzuarekin, [formulariotik](#) edo (948 42 32 42) telefono-zenbakira deituta, zure txartelaren datuak eguneratzeko.

GORABEHERRAK

1. Ez dut jaso txartela/*app*-rako gakoa. Nola eska dezaket?

Kanpainako taldea pertsonalki ari da ematen materiala eta edukiontziak edo bilketa pneumatikorako buzoiak irekitzeko sistema berria erabiltzeko informazioa, etxebizitza eta saltoki guztietara bisitak eginez eta informazio-guneak kokatuz.

Hala ere ez badituzu jaso, jar zaitez harremanetan Herritarren Arretarako Zerbitzuare-



kin, 948 42 32 42 telefono-zenbakian edo Mankomunitatearen [webgunean](#).

2. Txartela galdu edo hondatuz gero...

Eskatu txartel berria Herritarren Arretarako Zerbitzuan, 948 42 32 42 telefono-zenbakian edo Mankomunitatearen [webgunean](#).

Posta arruntaren bidez txartel berria jasoko duzu etxean edo establezimenduan.

Txartelak EHGrako saldoa badu, honela jokatu da:

-Galdu egin bada, saldoa ere galduko da.

-Hondatuta edo matxuratuta badago, txartelak kargatzeko edozein gune fisiko-tara joan daiteke, saldoa beste txartel batera aldatzeko (Eskualdeko Hiri Garraioko txartel pertsonalizatua, Eskualdeko Hiri Garraioko txartel izengabea edo hondakinetarako beste txartel bat). Txartel hondatua edo matxuratua establezimenduan utziko da, baztertzeko. Garrantzitsua da nabarmentzea txartelak kargatzeko gune fisikoetan ez dela hondakinetarako txartel berririk ematen.

3. Nola jakinaraz dezaket edukiontzia beteta dagoela edo poltsak dituela kanpoan?

Edukiontzi bat beteta badago eta ezin baduzu zure poltsa bota, eman gorabehera horren berri Herritarren Arretarako Zerbitzuari (948 42 32 42 telefono-zenbakia edo Mankomunitatearen [webgunea](#)) eta eraman poltsa hurbilen duzun edukiontzira.

Ez ezazu utzi inoiz zabor-poltsarik edo beste mota bateko hondakinik, adibidez, tamaina handikoren bat, edukiontzitik kanpo. Ez da gizalegekoa, eta zigortu egin daiteke.

4. Zer egin behar dut irekitze-sistema ez badabil?

Edukiontzia txartelarekin edo mugikorrarekin zabaltzeko pauso guztiak eman badi-tuzu eta, hala ere, ezin baduzu estalkia ireki, bota nahi duzun hondakinerako hurbilen duzun edukiontzia erabili eta jarri harremanetan Herritarren Arretarako Zerbitzuarekin (948 42 32 42 zenbakira deituta edo Mankomunitatearen [webgunean](#)), gorabeheraren berri emateko.

5. Irekitze-sistema ez badabil utz ditzaket kanpoan poltsak?

Ezartzen ari diren sarraila elektronikoen sofistikazioa gorabehera, gorabehera teknikoen maila oso baxua da, eta, gertatzen direnean, egunean bertan konpondu edo ordeztzen dira. Arazo teknikoak ez dira azalpen nahikoa kalean poltsak agertzeko. Izan ere, txartel bidezko edukiontzi berriak ezarri AURRETIK kalean biltzen zen poltsa-kopurua handia zen jada.



Iruñerriko Mankomunitatean [Hondakinak Kudeatzea arautzen duen Ordenantzaren](#) 21. artikulua erabiltzaileen betebeharrak jasotzen ditu, eta haien artean dago hondakinak edukiontzien barnean botatzeko betebeharra.

Ordenantza horrek berak jasotzen du, gainera, zehapenak edo zigorrak 750 euro (arinenak) eta 3.000 euro (larrienak) artekoak izan daitezkeela.

LEHEN EMAITZAK

1. Ikusi al da hobekuntzarik sistema berria ezarri den tokietan?

Aurreko sistemarekin gai organikoen %14 biltzen ziren berezita, eta sistema berriarekin bereiz bildutako gai organikoen %44 izatera igaro gara. Europako eta Foru Komunitateko legeek ezarritako helburuetatik urrun bagaude ere, hobekuntza nabarmena izan da. Izan ere, sistema iraunkorrek konpromisoa eta ahalegina eskatzen diete herritarrei, enpresei eta erakundeei.

Gainera, ia herena murriztu dira gainerakoien frakzioa botatuko hondakinak, eta ontziak (%33tik %46ra) eta papera (%68tik %77ra) emendatu dira.

DATUEN BABESA

1. Zer egingo du Mankomunitateak txartelak eta *app*-a erabiltzetik sortzen diren datuekin?

Bilketa-sistema berriak edukiontzi/buzoi desberdinen irekitze-kopurua erregistratzen du, erabilera-estatistikak lortzeko, egon daitezkeen gorabeherak detektatzeko eta sistema eskaerara egokitzeko; azken batean, hondakinak biltzeko zerbitzua hobetzeko Iruñerrian. Txartela helbide bati lotuta dago, eta ezin ditu lotu irekitze-datuak pertsona fisikoekin edo beste mota bateko datuekin inolaz ere.

Txartel hauen erabileraren ondorioz bildutako datu guztiak Iruñerriko Zerbitzuak, SA (SCPSA) sozietatearen erantzukizunpean tratatuko dira, batetik, gai organikoen eta gainerakoien frakzioetan edukiontzien erabilera eta, bestetik, bilketa pneumatikoan gai organikoetarako, gainerakoetarako eta ontzietarako buzoiaren irekitzeak aztertzeke. Eta, zehazki, erabilera-mailaren berri izateko, aplikatzeak diren araudi-helburuak lortzeko helburuarekin, eta bai informazioa emateko eta zerbitzua eta emaitzak sustatzeko jarduerak egiteko ere.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak eta herritarrek dauzkaten gainerakoak gauzatu ahal izango dira, Tratamenduaren Arduradunarengana joaz, protecciondatos@mcp.es helbidearen bidez

Pribatutasunari buruzko informazio gehigarria [webgunean](#) kontsultatu ahal da.

Jakina denez, IM-SCPSAk ur-kontsumoa fakturatzen du, eta datu horiek askoz ere zehatzagoak dira. Inoiz ez dira erabili kudeaketarako ez den beste gauza baterako, eta



inoiz ez da kexarik izan, pribatutasunean sartzea dela uste delako edo datu horiek gaizki erabiltzen direla uste delako. Gauza berbera gertatzen da beste operadore batzuen (elektrizitatea, gasa...) edo gailu batzuen (Internet, smartphone-ak, hirieta-ko kamerak, radarrak...) fakturazioekin.

2. Datuen babesari buruzko zalantzak?

Enpresa bakar batek ere ezin izango ditu eskuratu sistemaren erabiltzaileen datu pertsonalak.

Datu Pertsonalak Babesteko Araudi Nagusian eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan, abenduaren 5ekoan, ageri diren xedapen guztiak bermatzen ditu sistemak.

3. Sistema berriarekin jakin daiteke pertsona edo familia bakoitzak zer motatako hondakinak sortzen dituen?

Ez, ezin da. Gai organikoetarako eta gainerakoek frakziorako edukiontzia zenbaitetan ireki diren bakarrik erregistratzen dute txartelek. Ezin da jakin zenbat hondakin bota diren, ez eta haien osaera ere, nahiz eta sistemaren aurka daudenek hainbaitetan esan duten hori.